

MUGIKORTASUN PROGRAMAK 2024-2025

KONTAKTUAK

EHUn:

Nazioarteko Harremanetarako Koordinatzailea **Estibaliz Apiñaniz**

esc-ingenieria.internacional@ehu.eus

Rudeaketa akademikorako: Konpromiso Akademikoa, agiri horren aldaketak, egonaldia luzatzeko eskariak, etab.

Idazkaria: **Marian Santamaría/Jaime Ortiz de Urbina**

esc-ingenieria.internacional@ehu.eus

Rudeaketa administratiborako: informazioa, agiriak, zalantzak, etab.

Bekak: **Nazioarteko Harremanen Bulegoa (NHB)** movilidad.internacional@ehu.eus

Kanpoko Unibertsitatean:

Harremanetarako pertsona Nazioarteko Bulegokoa izan daiteke edo, bestela, koordinatzaile akademikoa.

Garrantzitsua da pertsona horri adieraztea noiz iritsiko zareten eta bertan zer egingo duzuen, behar adina denborarekin (gutxienez ere 3 hilabete), behar den dokumentazioa aurrez bidaltzeaz gainera. Gradu Amaierako Lana egingo duzuenok gai bat eta irakasle-tutorea aurkitu beharko duzue helburuko unibertsitatean lehenago.

GASTEIZKO INGENIARITZA ESKOLAKO MUGIKORTASUN PROGRAMETAKO IKASLEEK BETE BEHARREKO URRATSAK

1. ABIATU AURRETIK
2. HELBURUKO UNIBERTSITATEAN
3. EGONALDIAREN AMAIERAN

1. ABIATU AURRETIK

- Eskaria egin ahal izateko baldintzak:

- Europako nazionalitatea edukitzea edo egoiliar iraunkorra izatea.
- Gradu 2. mailan edo gorago egotea eta 1. maila guztiz gaindituta edukitzea irten baino lehen.
- Hizkuntza eskakizunak: Programa bakoitzaren taulan kontsulta daitezke. Helburuko unibertsitateak eskatutako maila zehatza eduki beharko da (web-orri bakoitzean begiratu).

- Parte hartu nahi duzuen programari buruzko informazio guztia irakurri [Nazioarteko Harremanen Bulegoaren webgunean](#).

- Konproba ezazue hautatu nahi duzuen helburuko unibertsitatean zuen titulazioa eskaintzen dutela eta ahal den informazio guztia lortu unibertsitateari buruz, haren webgunean bitartez eta aurreko urteetan han egon diren ikasleen bitartez. Ikus estekak eta iruzkinak [Eskolako webgunean](#).

- Unibertsitatearen **posta elektronikoa** maiztasunez kontsultatu, komunikazioa posta elektronikoa bidez egingo baita. Kontuan izan Nazioarteko Harremanen Bulegoak eta GAUR sistemak bakarrik zuen EHUko helbidea erabiltzen dutela (@ikasle.ehu.eus).

- Zuen egonaldiari buruzko informazio-bilera guztietara joan. Garrantzizko arrazoiak tarteko ezin bazarete bilera horietara joan, jakinaraz diezaguzue posta elektronikoa bidez.

RUDEAKETA AKADEMIKOA: dokumentuak.

Helburuko Unibertsitateari gutxienez ere hiru agiri eman beharko diegu: Eskaera (Application Form), Konpromiso akademikoa (Learning Agreement) eta Espediente akademikoa (Transcript of Records).

Eskaera (Application Form) zeuek prestatu behar duzue, askotan online. Nork bere helburuko unibertsitatean eskatzen diotena egiaztatzeko erantzukizuna izango du, eta **epe-mugak** zein diren jakin beharko du.

Konpromiso akademikoa (Learning Agreement).

Konpromiso honetan ikasleak helmugako unibertsitatean egingo dituen irakasgaiak zein EHU-n baliozkotu dituenak agertzen dira. Helburuko unibertsitate bakoitzak bere prozedura propioa izan dezake. Egonaldiaren eduki akademikoa zuzendariordearekin (Estibaliz Apiñaniz) adostu behar duzue.

Konpromiso akademikoa zuzendariordearekin adostu beharko da, abiatu baino lehen. Horretarako Excel taula bat erabiliko dugu, bi unibertsitateetako ikasgaiak jarritz, kreditu kopuruak eta EHUko irakasgai mota (hautazko/derrigorrezkoa) argi erakutsiz. Helburuko unibertsitateko egin nahi dituzuen ikasgaien irakaskuntza-gida bidali behar zaio Estibaliz Apiñaniz-i.

- Aldaketa oro posta elektronikoki bidez jakinarazi beharko da helburuko unibertsitatean ikasturtea hasi eta hamabost eguneko epean.
- *Zuen Konpromiso Akademikoan agertzen diren ikasgaiak EHU-n matrikulatuta egon behar dute baliozkotzea egin ahalizateko.*
- Gutxienez ere 30 kreditu egin beharko dira, baldin eta egonaldia 5 hilabetekoa bada, eta 60 kreditu baldin eta egonaldia ikasturte osoa bada.
- Ezin izango dira baliozkotu aurrez Eskolan suspenditutako ikasgaiak.
- Helburuko unibertsitatean aukeratzen dituzuen ikasgaiak **ingeniaritzakoak** izan behar dira. Hizkuntza-ikasgaiak soilik onartuko dira baldin eta pakete itxi baten barrenean badatoz, eta pakete horretan zer egiten duzuen aukeratzetik ez duzuenen.
- Eskolan nahitaezkoak diren ikasgaietarako, antzeko ikasgaiak proposatu behar dira (% 70).
- Hautazko ikasgaietarako askatasun handiagoa izango duzue, baina ingeniaritzakoak izan beharko dute eta Eskolan baliozkotu behar dituzuen kreditu-kopuru bera izan beharko dute.
- Helburuko unibertsitatean egindako ikasgaia EHU-n baliozkotu ahal izateko, **amaierako nota** eduki beharko du, eta egonaldia amaitu ondoren emango dizueten Transcript of Records agirian agertu beharko da.

EHUko espediente akademikoa (Transcript of Records). Eskolak bidaliko dizue.

Dokumentazio hau entregatuko diozue helburuko unibertsitateari dagokion epean (**ikasle bakoitzak bilatu beharko du harrerako unibertsitateko webgunean epe-muga horiek zein diren eta prozedura: online, posta bidez, posta elektronikoki bidez...**). Helburuko unibertsitate batzuen kasuan, Eskolako Zuzendariordetzaren bitartez bidali beharko da (Marian-ekin kontaktatu) edo Nazioarteko Harremanen Bulegoaren bitartez (batez ere Amerika Latina eta Beste Norako-en programetan).

Gradu Amaierako Lana egingo duzuenontzat, interesgarria litzateke aurrez helburuko unibertsitatearekin adostea Gradu Amaierako Lana eta hura zuzenduko duen tutorea, eskarian haiek adierazi ahal izateko. Horrela, arazoak saihestuko dituzue.

EGONALDIA PRESTATZEA: dokumentuak.

Ostatua. Ostatu-kontuak ahal bezain laster prestatu behar dituzue. Zeuek kudeatu beharrekoa da hori, helburuko unibertsitateak ematen dizuen informazioarekin. Unibertsitate batzuetan oso konplexua izan daiteke hori, eta lehenbailehen egitea komeni zaizue.

Aseguruak.

- Aseguru medikoa: Gizarte Segurantzari galdetu hura lortzeko zer egin behar den. Europako kasuan, Europako Osasun Txartela da. Beste herrialdeetara bazoazte, Gizarte Segurantzako bulegoetan galdetu beharko duzue nolako akordioak dauden, zer estaltzen duten eta nola funtzionatzen duten. Aseguru mediko pribatuak dituzuenok atzerrian nolako estaldura duzuen galdetu beharko duzue. GUZTIOK eraman beharko duzue aseguru mediko bat, eta haren kopia eskuratu beharko diozue Marian-i (eskaneatuta).

- Asegurua, istripu eta aberriratzekoa.

Deialdiko oinarrietan esaten da NAHITAEZKOA dela atzerriko egonaldi OSOA hartuko duen aseguru bat KONTRATATZEA.

EHUk hitzarmen bat du egina: IBILI-EHU, zeinaren bidez ikasleei <https://www.ehu.eus/eu/web/kontratazioa/ibili-ehu> eskaintzen baitzaie.

Aseguruaren fotokopia bat bidali beharko duzue Marian-i (esc-ingenieria.internacional@ehu.eus).

- Erantzukizun zibileko aseguru. Aseguru hori jada kontratatuta dauka Unibertsitateak ikasleentzat.

Aseguru horrek helmugako unibertsitateetan eragin ditzakezen kalteak estaltzen ditu; horietako batzuetan, hura aurkezteko eskatuko dizute laborategietan sartu ahal izateko. Nolanahi ere, unibertsitate batzuek zeuen erantzukizun zibileko aseguru kontratatzeke eskatuko dizute.

Bisatua. Bisatua eskatzen duten herrialdeetara joan behar duzuenok (bakarren bat seguru ez badago, Kanpo Arazoetarako Ministeriooko webgunean topatuko duzue informazioa –www.maec.es–, edo, bestela, enbaxadara telefonoz deitu beharko duzue) helburuko unibertsitateko nazioarteko arduradunari eskatu beharko diozue ikasle-trukeko programaren ikaslea izateari buruzko onarpen-ziurtagiria.

Kredentzialak. Zuen helburuko unibertsitate matrikularen frogagiria eta atzerrira doan ikaslearen ziurtagiri ofiziala (GAUREn dago) a beharko duzue.

BEKAK ESKATZEA: dokumentuak.

Informazioa aldizka gaurkotuko da [Nazioarteko Harremanen Bulegoaren webgunean](#):

- Europar Batasunaren beka, SEPIE-k ematen duena (Servicio Español para la Internacionalización de la Educación), Erasmus ikasleentzako bakarrik. **GAUR sistematik jaitsi Diru-laguntzaren Kontratu. Kontratu hori bete, sinatu eta Nazioarteko Harremanen Bulegora bidali, kontratatutako aseguruaren fotokopiarekin batera.**

GARRANTZITSUA: plaza bakoitzak hilabete jakin batzuk dauzka esleituta.

Helburuko unibertsitatean iritsi eta irteerako ziurtagiriak sinatzen dizkizuetenean, ongi begiratu beharko duzue egonaldiak behar diren hilabeteak hartzen dituela. Hala ez bada, kobratutako beken parte proportzionala itzultzeko eskatuko dizute.

2. HELBURUKO UNIBERTSITATEAN

1. Lehenengo egunetan, GAUR-tik **iritsi-ziurtagiria (Certificate of Arrival)** jaitsi beharko duzue. Harrerako unibertsitatean hura sinatzeko eskatu eta NHBra (movilidad.internacional@ehu.eus) bidali beharko duzue. Bestela, ez dituzue beka kobratuko.

2. Posta elektronikoko bidez eskatu ahalko diozue zuzendariordeari (Estibaliz Apiñaniz) **konpromiso akademikoaren** aldaketa justifikatuak bidaltzeko (ordutegiak gainjarrita egoteagatik, irakasteko hizkuntzagatik, egiazko edukiagatik...), beranduenez helburuko unibertsitatean ikasturtea hasi eta **15** eguneko epean. Onartu ondoren, Learning Agreement berria on-line ala paperean izapidetuko dugu, aldaketen orria zuzendariordeak sinatuta eta zuek eta helmugako unibertsitateak sinatuta eta zigilatuta.

3. HELBURUKO UNIBERTSITATEAN GASTEIZKO ESKOLAKO IKASGAIEN AZTERKETAR EGITEKO AUKERA

Helburua da saihestea helburuko unibertsitatean klaseak edo azterketak gal ditzazuen. Azterketa Eskolan egiten den egun berean eta ordu berean egingo litzateke, eta haren ardura duen irakasleak posta elektronikoz igorriko lioke helburuko unibertsitatean.

Behin egin ondoren, harrerako unibertsitateko arduradunak kopia eskaneatu bat eta jatorrizko azterketa igorri beharko dio (azterketa egin ondoren) ikasgaiko irakasleari.

Azterketa horrela egin ahal izatea ez da eskubide bat. Hori dela eta, Eskolako irakasleek ez dute zertan prozedura hori jarraitu, eta kontuan hartu beharko duzue prozesu horri datxezkion arriskuak onartzen ari zaretela (zerbitzariak huts egitea, jatorrizko azterketa posta-zerbitzuetan galtzea eta abar). Urrutiko azterketa bat egiteko, honako urratsak egin beharko dituzue:

1. Baimena eskatu kasuko ikasgaiko irakasleari.
2. Helburuko zentroko koordinatzailearekin harremanetan jarri, zuri azterketa egiteko prest dagoen jakiteko.
3. Eskari-inprimaki bat bidali azterketari buruzko informazioarekin: data, ordua eta irakasle arduraduna. Eskatzeko epea: abenduaren 15a, urtarrileko deialdirako, eta maiatzaren 1a, maiatzeko deialdirako. Ez da onartuko inongo urrutiko azterketarik, data horretarako adierazitako hiru urratsak egin ez badira.

Oharra: Azterketa hemen egiten den egun berean eta ordu berean egingo da, salbuespenik gabe. Kontuan izan, herrialde bakoitzeko jaiak eta lan-ordutegiak ez datozela beti bat. Hori dela eta, baldin eta hemen azterketa bat

egiten den garaian han jai-eguna bada edo berandu bada, ezin izango duzue azterketa helburuko unibertsitatean egin. Baloratu koordinatzaileentzat guzti honek dakarren ahaleginak.

Azterketa horietakoren bat suspendituz gero, azterketa berrikusteko prozesua ohikoa izango da; ezin izango da urrutiko berrikuspenik egin.

EGONALDIA LUZATZEA

Hasierako egonaldia soilik lehenengo seihilekorako bada eta ikasleren batek luzatu nahiko balu –harrerako unibertsitatea horrekin ados balego–, honako urratsak jarraitu beharko ditu:

1. Zuzendariordeari (Estibaliz Apiñaniz) eskatu beharko diozue posta elektronikoki bidez, arrazoiak emanda. Egonaldia zein egunetara arte luzatu nahi duzuen adierazi beharko duzue.
2. Aseguru indardunaren (egonaldiaren luzapenari dagokiona) kopia bidali beharko diguzue. Ez badaukazue, luzapen bat kontratatu beharko duzue.
3. Harrerako zentroaren baimena bidali beharko diguzue, non zentro horrek adieraziko baitu ados dagoela egonaldia luzatzearekin.
4. Konpromiso akademiko berria, aldi berrian egin behar dituzuen ikasgaiak jasotzen dituen.
5. Behin dokumentazio guztia daukagunean, posta elektronikoki bidez adieraziko dizuegu dena zuzen dagoen eta luzapena ofizialki onartuta dagoen.

Nolanahi ere, aldi berriak hasierako egonaldiaren jarraipenekoak izan beharko du.

Egonaldia luzatzen duen ikasleak onespén akademikoa bai, baina EZ du diru-laguntzarik jasoko.

3. EGONALDIAREN AMAIERAN

IKASGAIAK BALIOZKOTZEA:

Harrerako unibertsitatean azterketak amaitzen dituzunean, nabarmendu beharko duzue kalifikazioak **Noten ziurtagiria (Transcript of Records)** izenaz ezagutzen den inprimaki batean guri bidali behar dizkigutela helbide honetara: esc-ingenieria.internacional@ehu.eus

Paperean ere bidaltzekotan (ez da ezinbestekoa):

*Euskal Herriko Unibertsitatea. Gasteizko Ingeniaritza Eskola
Nazioarteko Harremanak
Nieves Cano kalea, 12.
01006 Vitoria-Gasteiz (Spain)*

Behin Eskolan, emaitzak jaso ditugunean Konpromiso Akademikoaren arabera baliozkotuko dira. Helburuko unibertsitatean ikasgaiaren bat suspenditzen baduzue, hemen suspendituztat joko dugu, dagokionaren arabera.

INKESTAK ETA EGONALDI-AMAIERAKO ZIURTAGIRIAK

Eskolara: zuen **egonaldiari buruzko laburpen bat** igorri beharko diguzue, testu librekoa, helburuko unibertsitate berera etorkizunean joan daitezkeen ikasleei zuzendua, gure web-orrian publikatzeko (posta elektronikoki bidez bidali: esc-ingenieria.internacional@ehu.eus).

Nazioarteko Harremanen Bulegoa (NHB): **egonaldia-amaierako ziurtagiria** (Certificate of Departure), GAUR-tik jaitzita, bidali beharko diozue (movilidad.internacional@ehu.eus), harrerako unibertsitateak sinatuta, eta eskatzen dizueten **online inkesta** bete.

KONTUZ: egonaldiaren hasierako eta amaierako datak zuzenak izan beharko dute. Urtero daude dirua itzuli behar izaten duten ikasleak. Litekeena da prozedura hori on-line izatea UPV/EHU « EWP » (ERASMUS WITHOUT PAPERS) programaren barruan egongo denean.